

JESUS ETA KANANGO EZKONBARRIAK

1

Nok ez dau entzun Kanaan
eta zer gertatu zan han?
Jesusek ura ardau bihurtu,
baeuken zer edan.
Batu zan bai nahiko nok jan,
ez zan izan inor bajan;
mirariz edo, danak asetzen
baeukan nahiko lan.

3

Danak jan ta edanean
Maria aldamenean,
ardaurik ezaz konturatu da
amaitu hainean.
Jesus jarri jakinean
jazo danaren gainean;
eta morroiak ipintzen ditu
bere esanean.

5

Banaka bat sèrbitzeko
gehienak prest edateko,
gauzak zein oker dagozan hemen
gogor salatzeko.
Ez egin beti eskeko,
prestau zaitetz laguntzeko;
mirari batzuk ondo letorkez
pozik bizitzeko.

2

Han ziran Jesus, Maria
eta jende ugaria,
apostoluak ere baeuken
konbite-saria.
Mahai beteko janaria,
sekulako bazkaria!
Igarri barik agortu jake
mama edaria.

4

Morroiak ura prestatu
ta Jesusek bedeinkatu,
mahaira orduko uraren orde
ardau zan gertatu.
Ardau barria dastatu,
zarraz ezin konparatu;
harri ta orma eginda ziran
guztiak geratu.

6

Jaunak sortuak mundura
deitu gaitu ezteguna,
geu zoriontsu gaitezan badau
hainbeste ardura.
Ardau ona ala ura
ta gainera zenbatgura:
Jainkoa lagun, alkarlanean
daukagu eskura.